## 2020KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

**Saila:** 20 OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

**Programa:** 25 ONDAREAREN KUDEAKETA

## SAILAREN MEMORIA

### I. MEMORIA

### II. PROGRAMATUTAKO HELBURUEN GAUZATZE-MAILA

1.- FORU ONDAREAREN KUDEAKETA

Lege eta ondare arloko eta ondarea kudeatzearen arloko hainbat jardun egin dira, zerbitzu publikoei egokitzeko xedez eta interes orokorra gogobetetzeko, ondarearen gizarte errentagarritasuna optimizatzeko ahalegina eginez.

Jarduketa eremu honen barruan eta ondasun higiezinak, higigarriak eta eskubideak eskuratzeari dagokionez, higiezinak eskuratzeko hamaika espediente izapidetu dira eta haien gaineko hainbat eskubide. Horrela, dohaintzei esker, artelanak eta elementu etnografiko bat eskuratu dira.

Aurreko eragiketetarako, sei ebazpen administratibo onetsi dira.

Ondasun higiezinen besterentzeei dagokienez, ondare finkak besterentzeko hiru espediente izapidetu dira. Eragiketa horiek bideratzeko, bi foru-agindu onartu dira.

Ondasun higigarriak besterentzeko edo doan lagatzeko bi espediente bete dira; besteak beste, ibilgailu batzuk lurraldeko hainbat erakunderi eman zaizkie.

Era berean, hiri ondasun higiezinen trukea izapidetu eta onartu da. Horretarako, foru agindu bat onartu da, eta dagokion eskritura publikoa sinatu da.

Zerbitzu publikoak emateko higiezinen errentamenduei dagokienez, dauden errentamenduen lau luzapen izapidetu dira eta horietako bat aldatu da. Era berean, indarrean dauden hamaika errentamenduen zenbatekoak eguneratu dira. Horretarako, bost ebazpen onartu behar izan dira (hiru erabaki eta bi foru agindu).

## LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2020

**Departamento:** 20 HACIENDA, FINANZAS Y PRESUPUESTOS

**Programa:** 25 GESTIÓN DEL PATRIMONIO

## MEMORIA DEL DEPARTAMENTO

### I. MEMORIA

### II. GRADO DE CUMPLIMIENTO DE LOS OBJETIVOS PROGRAMADOS

1.- GESTION DEL PATRIMONIO FORAL

Se han realizado diferentes actuaciones jurídico-patrimoniales y de gestión del Patrimonio, con el objetivo de su adecuación a la prestación de servicios públicos y para la satisfacción del interés general, tratando de optimizar la rentabilidad social del Patrimonio.

Dentro de este campo de actuación y en relación con la adquisición de bienes inmuebles, muebles y derechos, se han tramitado cinco expedientes de adquisición de muebles, inmuebles y diversos derechos sobre los mismos. Así, en virtud de donaciones, se han adquirido obras de arte y un elemento etnográfico.

Para las operaciones anteriores se han aprobado seis resoluciones administrativas.

En lo que respecta a las enajenaciones de bienes inmuebles, se han tramitado tres expedientes de enajenación de fincas patrimoniales. Para estas operaciones se han aprobado dos Ordenes Forales.

Se han cumplimentado dos expedientes de enajenación o cesión gratuita de bienes muebles, entre los que se encuentran la donación de varios vehículos a varias entidades del Territorio.

Se ha tramitado y aprobado asimismo una permuta de bienes inmuebles urbanos, aprobándose para ello una Orden Foral y firmándose la correspondiente escritura pública.

En lo relativo a arrendamientos de inmuebles para la prestación de servicios públicos, se han tramitado cuatro prórrogas de arrendamientos existentes y se ha modificado uno de ellos. Asimismo se han realizado las actualizaciones de los importes de once arrendamientos vigentes. Para ello ha sido necesaria la aprobación de cinco resoluciones (Tres acuerdos y

## 2020KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

**Saila:** 20 OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

**Programa:** 25 ONDAREAREN KUDEAKETA

Beste alde batetik, hamaika espediente tramitatu dira Arabako Foru Aldundiaren jabetzakoak diren hainbat higiezinen erabilera beste administrazio publiko batzuei edo irabazteko xederik gabeko erakundeei lagatzeko. Eta lehendik ziren zenbait lagapen erregularizatu edo luzatu dira.

Artelanen eta museoko objektuen hamabost mailegu onartu dira zenbait erakusketatarako, dagozkien Foru Aginduak eginda.

Urte osoan zehar, Arabako Lurralde Historikoko udalei eta Aldundiak jabetza higiezinak dituen beste lurralde batzuetakoei OHZ ordaindu zaie, guztira, 405.360,30 €.

Aurretik desjabetutako ondasun higiezinak itzultzeko helburuz, norbanakoek eskatutako hiru espediente izapidetu dira, eta, horretarako, bi foru agindu onartu dira, bai eta horiei dagozkien itzulketa aktak sinatu ere.

Finkak bereizteko espediente bat bete da.

Aldundiaren ondareko ondasunen gaineko defentsari, erreklamazioei, esleipenei edota baimenei lotutako berrogeita sei espediente izapidetu dira.

Arabako Foru Aldundiaren ondasun eta eskubideekin zerikusia daukaten ondare gaiei buruzko hogeita hamar txosten egin dira.

Aldundiak jabetza horizontaleko araubideko zenbait higiezinen jabeen erkidegoetan (22) parte hartzen duela eta, hogeita hamabost espediente izapidetu dira ordezkapenerako, erkidego horiekiko harremanetarako eta ohiko kuotak eta obrengatiko kuota bereziak ordaintzeko. Kontzeptu horien zioz, 49 ordainagiri ordaindu dira, guztira, 34.300,57 euroko zenbatekodunak.

Azkenik, eta inbentarioarekin lotuta, hamazortzi erregularizazio espediente tramitatu dira, zenbait ondare eragiketena, bai eta inbentarioko elementuen alta, baja eta aldaketena ere.

## LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2020

**Departamento:** 20 HACIENDA, FINANZAS Y PRESUPUESTOS

**Programa:** 25 GESTIÓN DEL PATRIMONIO

dos órdenes forales).

Por otro lado, se han tramitado once expedientes de cesiones de uso de diversos inmuebles propiedad de la Diputación Foral de Álava a otras Administraciones Públicas o Instituciones sin ánimo de lucro. Asimismo se han regularizado y/o prorrogado diversas cesiones ya existentes.

Se han aprobado cinco préstamos de obras de arte y objetos museísticos para diversas exposiciones, con sus correspondientes Ordenes Forales.

A lo largo de todo el año se ha realizado el pago del IBI correspondiente a los Ayuntamientos del THA y de otros territorios en los que la Diputación tiene propiedades inmobiliarias, por un importe total de 405.360,30 €

Se han tramitado tres expedientes de reversiones de bienes inmuebles solicitadas por personas anteriormente expropiadas, habiéndose aprobado para ello dos órdenes forales y firmadas las correspondientes actas de reversión con las mismas.

Se han cumplimentado un expediente para la segregación de fincas.

Se han tramitado cuarenta expedientes relacionados con la defensa, reclamaciones, adscripciones y/o autorizaciones sobre bienes patrimoniales de la Diputación.

Se han emitido treinta informes sobre asuntos patrimoniales, relacionados con los bienes o derechos de la Diputación Foral de Álava.

Con motivo de la participación de la Diputación en Comunidades de Propietarios de diversos inmuebles en régimen de propiedad horizontal (22 comunidades de propietarios) se han tramitado ocho expedientes para la representación, relaciones con dichas Comunidades y pagos de cuotas ordinarias y extraordinarias por obras. Por estos últimos conceptos se ha pagado 49 recibos por una cuantía total de 34.300,57 € .

Por último, y en relación con el Inventario, se han tramitado dieciocho expedientes de regularización en el mismo de diversas operaciones patrimoniales, así como de altas, bajas y modificaciones de elementos del Inventario.

## 2020KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

**Saila:** 20 OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

**Programa:** 25 ONDAREAREN KUDEAKETA

Aurreko ondare eragiketa juridiko guztien edo beste batzuen ondorioz, 2020an hamahiru eskritura publiko formalizatu dira.

2.- ARRISKUAK ETA ASEGURU POLIZAK KUDEATZEA

2020ko ekitaldian, 17 aseguru poliza berritu, izenpetu eta zaintzeko izapideak egin dira. Era berean, aseguru sarien 19 ordainagiri ordaindu dira; horien guztien zenbatekoa 830.903,85 eurokoa izan da urtean.

Bestalde, aseguru konpainien aurrean, Arabako Foru Aldundiaren eta haren foru erakunde autonomoen ondasunekin eta/edo erantzukizunekin lotutako 28 ezbehar espediente izapidetu dira.

3.- ADMINISTRAZIO EBAZPENAK

Ondare Zerbitzuan guztira 52 administrazio ebazpen (Diputatuen Kontseiluaren 18 erabaki eta 34 foru agindu) izapidetu dira, zegokion organo eskudunak onar zitzan.

4.- EKIMEN ARAUTZAILEA

Arabako Lurralde Historikoko Foru Ondareari buruzko martxoaren 27ko 11/2019 Foru Araua betez, Arabako Foru Aldundiaren ondasunak eta eskubideak erregistroan inskribatzeko erregelamendua onartu da 2020. urtean.

## LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2020

**Departamento:** 20 HACIENDA, FINANZAS Y PRESUPUESTOS

**Programa:** 25 GESTIÓN DEL PATRIMONIO

Como consecuencia de todas las anteriores u otras operaciones jurídico-patrimoniales se han formalizado durante el año 2020 tres escrituras públicas.

2.- GESTION DE RIESGOS Y POLIZAS DE SEGURO

Durante el ejercicio 2020 se ha tramitado la renovación, firma y custodia de 17 pólizas de seguros. Asimismo se ha realizado el pago de 19 recibos de primas de seguros, por un importe anual de 830.903,85 €.

Por otro lado, se han tramitado ante las Compañías. Aseguradoras 28 expedientes de siniestros, relacionados con bienes y/o responsabilidad de la Diputación Foral de Álava y sus Organismos Autónomos Forales.

3.- RESOLUCIONES ADMINISTRATIVAS

En total, en el Servicio de Patrimonio se han tramitado para su aprobación por el órgano correspondiente un total de 52 resoluciones administrativas (18 acuerdos del Consejo de Gobierno y 34 órdenes forales).

4.- INICIATIVA NORMATIVA

En el año 2020, se ha aprobado, en ejecución de la Norma Foral 11/2019 de 27 de marzo, de Patrimonio Foral del Territorio Histórico de Alava, un reglamento para la inscripción registral de los bienes y derechos de la DFA.